



# SAKONEAN, ITSASOA IKUSTEN DA MIANGOLARRATARREN UBERAN

Patxi Zubizarreta

2023  
IRAILA

Batzuek ezagutzen dute Federiko Krutwigen *Vasconia* (1962) obra eztabaidagarri bezain polemikoa, baina gutxi dakite Paco Miangolarra filantropoak sustatu eta finantziatu zuela, Venezuelako erbestetik Ipar Euskal Herrira etorri berritan. Batzuek ezagutzen dute Herri Gogoa diskoetxea (1967-1981), edo ezagutzen dituzte Laboak, Lertxundik, Iriondok, Letek, Valverdek... Groseko estudio klandestinoan grabatutako diskoak, baina inork gutxi daki, Iñaki Beobideren laguntzarekin, Paco Miangolarra proiektu haren mezenas gertatu zela, lehen politikan bezala kulturaren orain.

Donostia, Paris eta Caracas lotuko dituzte laketontzi, gerraontzi eta baporeek, Martin Ugalde, Carolina Herrera, Lezo Urreiztieta edo María Callas itsasoz lotzen ahal diren modu berean. Ahanzturaren uretatik atera nahian, Miangolarra Gorostiaga familiaren historia harrigarria dakar elkarriketetan oinarrituriko narrazio honek, Patxi Zubizarretak ohi duen idazmolde ederrean. Erbesteari eta, ezinbestean, herriminari buruzko sirena kantu bat.

## BIOGRAFIA

ISBN: **978-84-19319-62-3**  
ORRIALDEAK: **136**  
FORMATUA: **12 x 19**  
PREZIOA: **15,00 €**

BIOGRAFIA

KRONIKA

MEMORIA

EUSKAL KULTURA



### PATXI ZUBIZARRETA (1964)

Ordizia du jaioterra eta Gasteiz sorleku. Bertan idatzitako lanetan erroak nabarmentzen dira, hala nola *Hiru gutun Iruñetik* eta *Julien Vinsonen hegaldia* nobeletan, edo *Sakonean, itsasoa ikusten da* lan honetan. Baina hegoak ere nabariak dira, batik bat migrazioak eta mundu arabiarra guregana hurbiltzeko, esate baterako *Eztia eta ozpina* nobelan, *Korri, Kuru, korri!* ipuinean edota Nagib Mahfuzen *Mirarien kalezuloa* eta *Mila eta bat gauen gauak* itzulpenetan. Lan asko itzuli eta saritu dizkiote eta, generoak eta diziplinak bateratuz, hainbat ikuskizun eta performance eskaintzen jarraitzen du bai gurean bai atzerrian.

- Jean Echenozek *Ravel* gogoangarrian nola, Patxi Zubizarretak Miangolarraren figura berreskuratu eta abenturazkoa dirudien narrazio bat osatu du.
- XX. mende hasieran Venezuelara erbesteratu zen familia baten atzetik, garaiko euskal giroaren kronika egiten du: Espainiako gerra zibila, Venezuelako diaspora, Bigarren Mundu Gerra, Krutwig eta Legasse Iparraldean, ETaren erresistentzia, EAJ eta *Euzko Pizkundea*...
- Prosa ederrean idatzia, biografiatik, kronikatik eta memoria historikotik bezala, eleberritara literarioenetik ere badu obra honek.

## EGILEA TXALAPARTAN



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus